

# Hizpide

*Joan den abenduan Haur eta Gazte Literaturaren 2. Kongresua burutu zen Caceresen, eta bertan «Literatura eta Ilustrazio Iberiarren Historia Kritikoa» izan zen hizpide nagusia. Euskal ordezkariak han aurkeztutako txostenak dira ondoren eskaintzen direnak.*

## Zenbait gogoeta Haur eta Gazte Literaturako ilustraziogintzaren historiari ekiteko. Euskal Herriko ilustraziogintzarako hurbilketa

EDURNE URIA

Arte Ederretako Fakultateko irakaslea (E.H.U.)



Jokin Mitxelena

**E**uskal Herriko haur eta gazte literaturako ilustraziogintzak oso historia laburra dauka, eta oro har, argitaletxeen ekoizpenak daukan globalizazio maila dela eta, zaila da berariazko nortasunez mintzatzea. Lehenbizi, gaur egungo ilustraziogintzaren topikoak nola sortu diren aztertzea proposatzen dut, eta, horietatik abiatu-rik, geure produkzioaren garapenerako baldintza bereziak zehaztea, ondoren.

## ↪ Hizpide ↪

Jakina denez, ilustraziogintza literatura produkzioaren kontura hazi da, eta haren ahizpa txikiaren gisa oso ikerketa gutxi egin dira berari buruz. Historikoki ere, askoz urriagoak dira ilustraziogintzaren aldaketa formalez, funtzionaltasunaz edo garrantziaz egindako ikerketak.

Horrexegatik garrantzitsu deritzot ilustraziogintzaren nondik norakoak ulertzen ahalegintzeari, harreman konplexuen mapa zirriborratzeari, puntu batetik bestera eramango gaituena eta, horrekin batera, haur literaturako irudigintzak hartu dituen zidorren berri kontestualizatuagoa emango diguna, ilustraziogintzaren historiaren ikerketa sakona egiteko bideak izan daitezkeenak iradokitzeari.

### Ilustraziogintzaren iturriak eta ibilbideak gaur egun arte

Tipologia grafikoak, edo irudiek hartzen dituzten estiloa, erabiltzen dituzten kontzeptu estetikoekin batera, eraikiz eta aldatuz doaz ilustraziogintzaren historian zehar. Zeren arabera gertatzen dira aldaketok?

Lehenbizi, haurrentzako liburu ilustratua hasieratik bertatik baldintzatzen duen produkzio ikonikoaren esparrua hartu behar da gogoan.

Juan Antonio Ramirez-ek (1981) gogorarazten duenez, inprentaren erabilera orokortzen hasi zenetik, liburua irudiak zabaltzeko bide nagusia eta geroko demokratizazio ikonikoaren hazia bihurtu zen. Hortxe kokatzen da orobat haurrentzako liburu ilustratuen hasiera, Comenius-en *Orbis Sensualium Pictus* (1697) obrarekin. Egile horrentzat, «irudiak haurrek begira zezaketen jakintza modurik ulergarriena zen». Eta ideia horrekin sortu zuen bere obra, ama hizkuntza eta latina irakasteko irudi bidezko alfabeto gisa.

Pentsatzekoa da, ordea, haur gehienen mundu ikonografikoa lehen liburu ilustratu horietatik kanpo zegoela, elite ekonomiko eta kulturalari zuzendutakoak baitziren. Hala ere, XVII eta XVIII. mendeetako irudi asko iritsiko ziren haurren eskuetara: almanakak, eskupaperak, etabar. Grabazioaren teknikaren aberaste eta hobekuntzak irudi horiek merketzen eta hobetzen lagunduko zuen piskanaka.

Beste aldetik, inprenta asmatu baino lehenago ere benetako «historieta» bandak agertu ziren, berealdiko gertakizunen, hondamendien, eta garaiko handikien ezkontza eta amodioen berri emateko. «Babes irudiak» ere existitzen ziren: tokian tokiko saildun irudiak, sendatze ahalmena zutenak, kutun gisa erabiliak. Iruditeria horrek guztiak, testu kultuetaoarekin konparaturik –eskuizkribuetan garatzen ari zen ilustrazio apaingarria–, ezaugarri bereziak eskaintzen zituen: sinplifikatuak eta estilizatuak, ulerterrazak, alfabetatu gabeko ikusleentzat pentsatuak, eta herri artetik hurbilago garaiko tradizio artistikotik baino.

Mundus.



Die Welt.

Comenius

## ↔ Hizpide ↔

Marc Sorianoren iritziz (1975), XVII. mendetik aurrera haurrentzako liburu ilustratuak jasandako garapen handia are errotuago egongo da horrelako argitalpen herrikoietan: herri foiletoak, almanakak, ikur bildumak, kinkilari-liburuak, etabar. Argitalpen horien hartzaileak alfabetatu gabeak ziren aldetik, irudiei garrantzi handia ematen zitzairen, haurren beharrekin bat etorritik. Maila sozial apaleko helduen eskakizunak, eta adin txikiko haurrenak nolabait batu egiten ziren.

Guztiarekin ere, garaian garaiko korrante artistikoen eragina ere nabaritu zen. Comeniusen *Orbis Pictus*-en bertan ere, hurrengo mendean zehar gero eta edizio luxuzkoagoen bidez oso imitatua izan baitzen, Durero eta bere garaiko grabatuen eragina aurki zitekeen. Gaur egun ere antzeman daiteke goi mailako kultura artistikoaren eta iruditeria herrikoien arteko elkartzeko hori.



Daumier

Geroago, XIX. mendean Daumier frantziarra bezalako egileekin famatu zen karrikatura genero adierazgarria eta herrikoia ere haurrentzako argitalpenetan integratu zen nabarmenki. XIX. mendean Cruikshank, Töpffer edo Busch-en obrak dira aipagarrienak. Estilo zuzen eta herriko horrek oso egokia dirudi haurren eskakizunetarako. Geroztik, karrikatura-tradizioa eta ilustraziogintza eskutik joango ziren.



W. Busch

## BIBLIOGRAFIA

ARBUTHNOT, M. H.: *Children and books*. Foresman & Co. Glenview, 1964.

BRAVO-VILLASANTE, C.: *Historia de la literatura infantil española*. Ed. Revista de Occidente. Madrid, 1959.

BRAVO-VILLASANTE, C.: *Historia de la literatura infantil universal*. Doncel. Madrid, 1971.

CIANCIOLO, P.: *Illustrations in children's books*. Nm. C. Brown, 1976.

CIANCIOLO, P.: *Picture books for children*. American Library Association, 1981.

DURAND, M. eta BERTRAND, G.: *L'image dans le livre pour enfants*. L'Ecole des loisirs. Paris, 1975.

ETXANIZ, X. eta OLAZIREGI, M.: *Euskarazko haur eta gazte literatura idazleak*. Pamiela. Iruñea, 1998.

ETXANIZ, X.: *Euskarazko haur eta gazte literaturaren ilustrazioak*. Arabako Foru Aldundia. Gasteiz, 1997.

ETXANIZ, X.: *Haur eta gazte literatura*. Pamiela. Iruñea, 1997.

ETXANIZ, X.: *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. E.H.U. Doktore Tesia, 1997.

FEAVER, W.: *Les images de notre enfance. Deux siècles d'illustration de livres d'enfants*. 1976.

FREEMAN, R. S.: *Children's picture books yesterday and today*. America Life. Foun, 1967.

HÜRLIMANN, B.: *Tres siglos de literatura infantil europea*. Juventud. Bartzelona, 1982.

LABAYEN, M.: *Txiki, marrazkilaria ta umoredun*. Auñamendi. Donostia, 1973.



Aurreko garaietan ilustratzaileek haurrentzako ipuinetan eta helduentzakoetan kode bakarra erabiltzen zutela pentsatzekoa bada ere, XIX. mendetik aurrera, nobela genero gisa ezarri zenez geroztik, nolabaiteko bereizkuntza agertzen hasi zen. Ipuintxo didaktiko laburrak, umore puntu batekin, Töffer edo Hoffmann-enak kasu, kode adierazgarrietarantz leratzen dira, nobela jaioberriak formula errealistagoetara jotzen duen bitartean. Hala ere, Doré-rena bezalako obra batean, herri ipuinak ilustratzeko orduan oso ezberdintasun txikiak aurkitzen ditugu alde horretatik, nahiz eta horrelako ipuinak piskanaka haurren alorrerantz iragan, helduentzako kode berberekin.

Alde horretatik ezin aipatu gabe utzi baliabide teknikoen garapenak ilustraziogintzaren nondik norakoan izan duen garrantzia. Grabatuaren teknikak hasieran zituen baldintza teknikoetatik (esaterako, marrazkigileak sinplifikatu egin behar zuen bere bozetua grabatzailearen lana erraztearren), gaur eguneko teknologia anitzetara pasatu gara.

Baina hurrei zuzendutako obretan gertatutako aldaketan atzean, haurtzaroaren kontzeptioak berak ere baldintzatu zituen estilo grafikoak. Jakina denez, Rousseau-z geroztik haurtzaroa ulertzeko era desberdin baten jarraipena egin daiteke. Haur eta gazteentzako ipuinen ilustrazioaren kasuan, haurtzaroa ikusteko era berriak XIX. mendetik aurrera emango zituen bere fruituak.



Ingalaterran, Dickens-ek haurtzaroaren kontzeptu oso bat eraikiko zuen bere obraren bitartez, XIX. mendeko bigarren erdian zehar garatuko zena. Egile horren deskribapenak plano grafikora ere eramán ziren, *The Old Curiosity Shop* delakoaren kasuan bezala, 1840an idatzia eta George Cattermole-k ilustratua. Haur liburuetako iruditerian desagertutako baserri-bizimoduaren nolabaiteko nostalgia agertzen hasi zen, hirietako ustelkeriaren aurrean, aingeru edo maitagarri txikien modura aurkeztutako hurrekin batera, Kingley-ren *The Water Babies* (1863) obran bezala, Noël Paton-ek ilustratua.

Estilo pinpirin horretatik urrun, baina haur irudia indartsu finkatuz, Tenniel-ek Lewis Carroll-en *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* eta *Ispiluan barrena* obretarako egindako ilustrazioak aipatu behar dira, non Alice argizarizko panpinaren moduan agertzen baita.

Ez dira ahaztu behar garaiko filosofi korronte idealistak, pentsamolde erromantikoaren eragina eta, Ingalaterran konkretuki, mugimendu prerrafaelistaren sorrera. Korronte artistiko horretatik oso hurbil, Crane, Greenaway eta Caldecot-ek haurtzaroa ikusteko molde berriari behin betiko bultzada eman zioten ilustraziogintzaren alor ikonografikoan: izaki eztiak, xaloak, babestu beharrekoak. Joera grafiko hori indartu egingo zen gure mendean, eta haurrentzako ikonografia osora zabalduko (jantziak, geletarako oihalak, etabar). Gaur egun ilustraziogintzak daukan iturri indartsuenetariko bat da.

Jadanik XX. mendean, haur literatura eta ilustraziogintza indartuko zuen elementua haurrentzako adierazpide grafikoek, haur garapenari buruzko ikerketek eta berrikuntza pedagogikoko mugimenduek piztutako interesa izan zen. Irudiak irakurle txikiei egokitzea artista eta hezitzaile askoren kezka bihurtu zen (Frantziako Père Castor-en albumak, horren lekuko). Pedagogi kezka horien guztien ondorioa oraindik irakurtzen ez dakiten haurrentzat dagoen material ugaria da.

Baina mende berriaren etorrerarekin batera, ezin dugu ahaztu haurrek eskura daukaten irudien potentziala eta irudi horiek irakurtzeko garatu duten esperientzia eta trebetasuna. Aipatutako aldaketa estilistikoak alde batera, joan den mendean Crane-rena bezalako obrak gutxiengoaren pribilegio ziren. Gaur egun or-

## BIBLIOGRAFIA


LUR ENTZIKLOPEDIA TEMATIKOA. *Artea*. Lur. Bilbo, 1997.

MORRIS, R.: *The illustration of children's books*. The Library Association. Londres, 1957.

RAMIREZ, J. A.: "El comic femenino en España". *Cuadernos para el diálogo*. Madrid, 1975.

RAMIREZ, J. A.: "Medios de masas e historia del arte". *Cuadernos de Arte*. Cátedra. Madrid, 1981.

SANTOS GUERRA, M.: *Imagen y educación*. Anaya. Madrid, 1989.



Tenniel

SORIANO, M.: "Les livres pour enfants". *Enfance*, zenbaki berezia, 1955-56.

SORIANO, M.: "Chronique des livres d'enfants". *Enfance*, zenbaki berezia, 1955-56.

WITAKER, M.: "The didactic use of illustration in books for children". *Children's Literature in Education*, 16, 1975.

## ↻ Hizpide ↻

dea, garatutako herrietako derrigorrezko eskolaratzeak testu liburuak, kartelak eta beste jarri ditu haurren eskura. Horrekin batera, inprimaketa teknika berriek posible egin dute irudi askoren zabalkundea egunkari eta iragarkietan. Alfabetizazio gero eta orokortuagoak etxetara ere eramango zituen material horiek.

Hala ere, aldaketarik funtsezkoena zinema eta telebistaren agerpena izan zen. Juan Antonio Ramírez-ek (1981, 47. or) hauxe komentatzen du:

Zinemak eta bere berezko ondorioa den telebistak, amildegi sakon bat ezarri dute errealitatea ikusteko moduan. Berarekin hazi garenok inoiz ez ditugu behar bezala ulertuko geure aurreko belaunaldien ikuskera eta errepresentazio moduak.

Haurrak gero eta trebeagoak izango dira irudiak interpretatzen, eta lehenago eskuzko irudiak betetzen zituen informazio funtzioak irudi fotografiko eta elektronikora pasatu dira. Ilustraziogintzak, arteak bezala, jadanik ez dio haur bati lehoi bat, basamortu bat, etabar zer diren azaldu behar, funtzio horretan ordezkatuak izan baitira.

Mendearen lehen erdia irauli eta hurrengo hamarkadetan iraun zuen artisten espekulazio estetikoak, ordea, ez zuen eragin garrantzitsurik izan ilustraziogintzaren alorrean. Azaltzekotan, ekialdeko herrietako artisten obretan ikus daiteke argien.

Puntu honi buruz ari garela, ezinbestekoa da beste gogoeta ardatz bat aipatzea ilustraziogintzako irudiek jasandako garapen formala ulertzeko: ilustraziogintza artistentzako behin-behineko egonaldi-alorra izan ohi da. Lan horrek, argialetxe eta testuek baldintzaturik, askatasun maila txikia dauka, ospetsuenentzat izan ezik. Editore askoren irizpide estetiko faltak, baldintza ekonomiko eta ilustrazioek hartzaileei eskain diezaieketen formazio artistikoarekiko axolagabetasunarekin batera, amateurren-



## ↪ Hizpide ↪

tzako eta formula tradizionalentzako alorra bihurtu dute ilustraziogintza. Arte garaikidea ez da erraz ulertzen, eta espekulazio plastikoak beldurra ematen du ilustraziogintzaren zirkulu komertzialetan.

Jomuga garrantzitsu batekin topo egiten dugu hemen; izan ere, zinema ere ikusle gazteez interesatzen da eta bere produktuak zuzentzen dizkie. Ezbairik gabe, animazio-zinemak garai bateko ilustraziogintzan ditu bere iturriak, batez ere haurtzaroren irudi samur berriari eta adierazpen eta umore formulei dagokienez. Baina zinema-produkzioek, bere aldetik (Disney faktoriarenak, kasu), eragina izango dute ilustraziogintza berrian. Produkzio merkeetan imitatu eta aurreko heredentziarekin nahastuko den estilo bat markatuko dute.

Horixe bera gertatuko da «Asterix» edo «Tintin» bezalako komiki arrakastatsuekin. Izan ere, komikia, mende hasieratik, eraginen beste iturri bat izango da, hala karikaturarekin lotutako arrastoan, nola gartuko dituen baliabide narratiboetan, zeintzuetatik ilustraziogintzak gaur egun ere etengabeko etekina ateratzen duen. Zinemaren baliabide narratiboetatik ere edaten du ilustraziogintzak: planifikatzea, argiaren erabilera, zoomak, denbora jauziak, espazioaren irudikatzea, etabar.

Funtzionaltasun-aldaketez hitz egin dezakegu? Nolabait, baietz uste dut.

Funtzio didaktikoari dagokionez, aurreko mendeetako kasu berean gaude. Muriel Whitaker-ek gaiari buruzko artikulu batean dioskunez (1975), jakin behariko genuke zenbat aldiz agertu diren umeen amesgaiztoetan narraskeriagatik, desobedientziagatik edo helduekiko errespeto faltagatik nazka eragitea helburu zuten ilustrazioak. Ilustrazioen funtzio didaktikoa ukatzea haur literaturarena berarena ukatzea litzateke, baina funtzio hori gaur eguneko beste irudiekin partitzen duela esan dezakegu. Egun, funtzio didaktikoa haur txikienentzako liburuetan ikus dezakegu garbien. Edonola ere, beste funtzioen aurrean garrantzia galdu duela esan daiteke.

Funtzio informatiboari dagokionez, jadanik adierazi dugun bezala, komunikabide nagusiaren agerpenak (irudi ikoniko fotografikoa: zinema, edo elektronikoa: telebista) askatasuna eman dio ilustraziogintzari alor poetiko, irudimenezko, adierazpenezkoan sartzeko. Argazkigintza bezalako irudi oso ikonikoari etengabe uko egiteak, eskuzko irudiaren alde, beste era bateko informazioa komunikatzeko nahia eragiten du. Apika munduaren ikuspegi berriak sortuz, errealitatea interpretatzeko beste dimentsio batean eraikiz doazen munduak: metafora eta sinboloaren alorrean, irudi artistikoa jakintza bide desberdin gisa erabiltzeko gogoan.

Jostatze funtzioa, indarrean ote dago? Goraka al doa? Berriz ere, beste garaietako irudi-eskasiak, eta orduko hartzaileengan ametsak sortzeko







zuten ahalmenaz gogoeta egin beharko genuke. Ziurrenik pentsamendu sinbolikoaren indar osoa estampa apal baten aurrean zabalduko zen. Baina gaur egun ere, irudiak hartzaileak erabakitako erritmo eta ordenean irakurtzeak, hiru-dimentsioko objektu gisa daukan erakargarritasunak, gorde egiten den jostailu/jabego gisako liburu ilustratuak mugimenduzko irudiekiko (TB, bideojolasak, zinema...) konkurrentzia eragiten dute oraindik.

Adierazpenezko funtzioaz, badirudi, oro har, gaur eguneko artea edozein espekulaziotatik askeagoa dela. Orobat pentsatzekoa da askotariko irudiak ikustera ohituta dauden umeak esperimenduzko plastikoaren aurrean irekiagoak direla. Umeek irizpide estetikoak sortzen dituzte (Parson, Gardner, Eisner, eta abarren ikerketak), eta oso litekeena da adin jakin batetik aurrera irudi horiek artearekin daukaten harreman zuzena ondorioztatzen hastea. Alde horretatik, eskertzekoa litzateke ilustrazioak artearen baloraziorako zubi izatea, kalitatezko haur eta gazte literaturak irakurle onak eragiten dituen era berean.



### Gaur eguneko ilustraziogintzaren sailkapenerantz

Nola defini dezakegu azken hamarkadetako egoera, eredu ikonografikoei dagokienez? Erabateko banaketarik egiteko asmorik gabe, gertatzen ari diren joera formalak iradoki nahi genituzke. Kasu batzuetan bes-tetan baino nabarmenagoak izango dira, eta aipatu ditugun faktore historikoetatik era askotara eratorriak ere bai:

- 1) Lehen joerak jatorri didaktiko nabarmena dauka, haur txikienei zuzendua. Garbi ikus daiteke bertan irudia komunikatiboa, argia, erraza izateko gogoia. Aldi berean, haurtzaroaren irudi samurra, babestua jasotzen du, eskematizazio handiz.
- 2) Bigarren joera orokorragoa da. Askotan haur txikiei zuzenduta dago, irakurtzen hasteko adin horretakoak, eta lehen aipatu dugun haurtzaroaren ikuspegia erabiltzen du, baina tartekatuz doaz umorezko osagarriak, karikaturaren tasun adierazgarriagoak, komikia eta zinemaren eraginak. Oro har, eskematizazioa ere oso handia da.

Hartzailleen adina goraka doan neurrian, aipatu joera areagotu egiten da. Irudiak irakurtzen trebeagoak direlakoan, ausardia handiagoko irudiei aurre egin diezaiekete. Azken hamarkadetan haurtzaroaren irudi babestua nolabait ezbaian jartzen ari da. Zortzi urtetatik gorako haur liburu askotako pertsonaiak forma samurretako panpintzar goxoetatik bereiztuz doaz, mende berriko haur errealitateetik hurbilago dauden pertsonaia sakonagoetara hurbiltzeko. Ondorioz, irudi gogor eta adierazgarriagoak eta umore zorrotzagoa sortuz doaz.

- 3) Nerabeei zuzendutako obretan, askotan paper-azalezkoak eta zuri-beltzekoak, abenturetako, bakeroetako edo genero beltzeko komikiaren eraginaz hitz egin daiteke: irudi dexente errealistagoak, zinemakoen antzerakoak. Beste eragin bat helduentzako noble-tako ilustrazio-tradizioa da, errealista orobat. Baina obra askotan espekulazio plastiko garrantzitsuak ikusten dira, literaturaren ikuspuntutik gertatzen diren berritasunekin bat etorritz.

### Euskal Herriko egoera: hurbilketa saio bat


Ilustraziogintzan gertatzen den nazioartekotasuna kontuan hartuta, oso zaila da identitate bereziak zehaztea; hala ere, tokian tokiko garapean zenbait desberdintasun formal antzemateko giltzak aurkitu ahal ditugu, nahiz eta korrante historiko zabalagoetan kokatuta dauden.

Euskal Herriko ikustraziogintzan ere berezitasun jakin batzuk aurki daitezke, deskribatu dugun barruti orokor horren baitan. Berezitasunok zehazten ahaleginduko gara, zenbait baldintza historiko gogoan hartuta:



Jokin Mitxelena

## ↪ Hizpide ↪



Txiki



Txiki



Txiki

- 1) Gaur egun, formato handiko liburu produkzioa (narrazioaren pisu-  
sua ilustrazioan daukaten irudi liburuak) oso txikia da. Aitzitik,  
pisu gehiena idatzizko narrazioan daukaten liburu ilustratu asko  
argitaratzen dira.
- 2) Testuinguru horretan, karikaturaranzko formulak dira nagusi:
  - Adierazkortasun handia lerroetan; lerroen erabilera sentsazioak,  
mugimendua, indarra, etabar komunikatzeko bide nagusi gisa.
  - Deformazioaren erabilera elementu adierazgarri gisa.
  - Umore nahiko xaloa.
  - Komikiaren tradizioetik hartutako kodeak (mugimendu le-  
rroak...).
  - Espazioa azpimarratzeko formulak: eskortzoak, deformazioak,  
zinema-baliabideak (goitik beherako / behetik gorako planoak),  
etabar.
- 3) Jatorrizko ekoizpen urria oraindik irakurtzen ez dakitenentzat;  
horrelakoetan, esan bezala, nagusitasuna hartzen duen irudia des-  
kodetzeko ahalegina da helburu garrantzitsu bat.

Jarrai diezaiozun azken ezaugarri horren ibilbide historikoari.

Gure herriko ilustraziogintza-tradizioan kokatzen bagara, gerraurre-  
ko garaian ilustratzaile emankor batekin egiten dugu topo: Txiki, Erre-  
suma Batuan jaio eta hil zen arren (Manchester, 1892- Londres, 1948),  
bere lanaren zati handi bat Donostian garatu zuena. Madril eta Donos-  
tiako arkitektura eskolatan ikasi zuen, baina ez zituen ikasketok burutu.

Artista honek argi eta garbi parte hartu zuen bere garaiko espekulazio  
plastikoetan, eta zenbait alorretan lan egin zuen ilustratzaile bezala: he-  
rri ipuinetan, helduentzako komikibandetan, afitxe eta karteletan, eta,  
oso bereziki, haurrentzako komikibanda eta ipuinetan: *Martin Txilibi-  
tu*, *Umearen laguna*, *Xabiartxo*, *Garoa*, *Antzerti*, *Poxpolin* dira titulue-  
tako batzuk. Umorea da artista honen obraren ezaugarrietako bat, nahiz  
eta gerora gerrak eta atzeriak errotik moztuko zuten haren ibilbidea.

Estiloa testuaren eskakizunetara moldatzen jakin zuen. Zenbait obra-  
tan Arteta, Zubiaurre edo Arrueren estilora hurbiltzen da, bertako per-  
sonaien eta irudi kostunbristen tipologian; hain zuzen, irudi horietan  
indar handia izan zuten «euskal» gizon-emakumeen tipifikazio grafikoan.  
Ikuspegi nolabait idealizatu hori, umorearekin edo umorerik gabe, per-  
sonaia herrikoiak, kontakizun tradizionalak eta haur literatura jasotzen  
dituzten obretara zabalduko zen aurrerantzean.

Bereziki azpimarratzekoa da Txiki mende hasierako abangoardietako  
esperimentazio arrazionalistenarekin lerrokatu izana, ahalik eta elemen-  
tu formal gutxienekin adierazkortasunik handienaren bila: lerroa eta tes-  
turak, batez ere. Haurrentzako obren kasuan, teknika horiek irakurketa

## ↻ Hizpide ↻



Txiki



Jon Zabaleta

Jesus Lucas

erraz eta esanahi handiko baliabideen bilaketarekin izan dezakete zerikusia.

Jai giroko tonu alaiaren, ondo mugatutako forma oso sinpleen lorratza askoz geroagoko artista emankorren lanetan jarrai daiteke (azken bi hamarkada hauetan). Jesus Lucasen ilustrazioek batez ere, baina baita Jon Zabaletaren zenbait lanek ere, Txikiren obra gogorarazten digute, formen arintasun, ausardia eta bizitasunagatik.

Edonola ere, gogoan hartu behar da artistek jasotako eraginak ezin direla iturri bakar batera mugatu. Kasu honetan, denbora-tartea eta gerrak eta frankismoak eragindako etenaldiak ia ezabatu dute Txikiren eta gaurko ilustratzaileen arteko lotura.

Baina Euskal Herriko gaurko ilustraziogintzaren nondik norakoak ulertzeko beste erreferente bat ekarri behar dugu: jatorrizko komiki-produkzioa, 1918tik aurrera, «Tales eta Niko» pertsonaiekin *Euzko Deia* aldizkarian. Aipatu lanak sinatu gabe zeuden, eta piskanaka irudiaren azpian zegoen testua globo klasikoetara eramanez doaz.

Errepublikaren garaian EAJ/PNV alderditik hurbil dauden beste aldizkari batzuk agertu ziren: *Poxpolin*, *Euzko Gastetxu* eta *Txiki*. Lehen eta garrantzitsuenak TBO bezalako Bartzelonako argitalpenetatik hartzen zituen bere edukietako batzuk; euskal marrazkigile bakarra aipatutako Txiki zen.

Hirurogeiko hamarkada arte itxaron beharko zen jatorrizko produkzio saio berriekin topo egiteko. Komikibanden arloan izan zen: Elizaren babespean eta ikastolen mugimendu jaioberritik hurbil *Pan-Pin* aldizkaria argitaratu zen, Bruguera eskolako pertsonaien «euskal» bertsoiekin: «Txorizo eta Txistorra» (*Mortadelo y Filemón*), «Jangoluke Albaluke» (*Carpanta*), etabar.





## ↪ Hizpide ↪



Asun Balzola



Erramun Landa

Beste alde batetik, ez da ahaztu behar urte horietan Asun Balzola hasi zela lanean, euskal artisten arteko ezagunen eta nazioartekoena.

Jadanik 1965ean Lazarillo saria merezi izan zuenetik, oso ibilbide ikusgarria garatu zuen (Janusz Korczak, 1981; Jane Adams, 1981; Apel.les-Mestres, 1981; Bratislavako Urrezko Sagarra, 1985; Ilustrazioko Sari Nazionala, 1985...), eta laster hasi zen Euskal Herriko jatorrizko liburu-gintzan bere lorratza uzten. Balzolaren obrek, hasiera batean haur txikiei zuzenduak, oso estilo pertsonala daukate; azpimarratzekoa da egileak daukan ausardia mugagabeko forma ia abstraktuen erabileran, ezohizkoak haur txikientzako obren tradizioan. Ilustraziogintzak berezko dituen baliabideak esperimentatzen ditu: espazio eta denboraren narrazioa, orrialde bikotzeko jolasak, erritmoa, etabar, eta azpimarratzekoa da poesiaz beteriko sentsazioak, mundu arin eta leunak sortzeko daukan gaitasuna.

Hain zuzen ere, ezaugarri horiek izango ziren (xalotasuna, arintasuna, leuntasuna, poesia, ilustraziogintzak berezko dituen baliabideak bilatzea), gure iritziz, geroko egileen obretara iragan direnak, nahiz eta estilo berezituaren bidez gertatu. Horixe da Erramun Landaren kasua, 80ko hamarkadaren bukaeran lanean hasitakoa, komikian errotutako tradizio nagusitik nabarmenki aldentzen dena.

Asun Balzolak etengabe lan egiten jarraitu du idazle berrien testuak ilustratzen, nahiz eta horretarako batzuetan tamaina handiko eta koloretako formatoak alde batera utzi behar izan dituen. Edonola ere, «egile-liburuak» egiten jarraitu du, eta bere esperientzia sendoak posible egin du lan interesgarri bat esperimentazio plastikoaren arloan, paper-azalezko edizioetan bada ere.

Normalean urkolorea eta akuarela lantzen ditu, eta baita collage-a ere helburu desberdin batzuekin, baina bere estiloa hartzaileen adinera edo obren tonura egokituz beti ere.

Luze hitz egin genezake artista honi buruz, baina 70eko hamarkadara itzuli behar dugu, beste egile eta joera batzuen bila.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan marrazkigile eta gidoigile talde bat bildu zen *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkarien inguruan, horien artean Antton Olariaga eta Jon Zabaleta. Komikia, hasiera batean haurrentzat egina, helduentzat ere egiten hasi zen, argitalpen berrien bitartez.

Alde horretatik, tirada handiko egunkarietan agertutako zenbait pertsonaia famatu aipatu behar dira: Antton Olariagaren «Zakilixut», *Egin* egunkarian (1977tik), edo Juan Carlos Eguillorren «Mari Agirre» eta «Miss Martiartu» *El Correo*-n (1977), bereziki interesgarriak diren bi adibide dira.

Nire ikuspuntutik izugarri inportantea da horiek utzitako lorratza.



Jokin Mitxelena



Jokin Mitxelena

Euskaltasunaren ikuspegi berrindartu eta freskoa, idealismo erromantikoko estereotipo goxoetatik urrun; gaurko pertsonaia hurbil baten ibilerak umore handiz erakusten dituena, lehen kasuan; eta euskal kostunbrismoaren, konkretuki bilbotarraren karikatura dibertigarri eta surrealista, bigarreanean. Ezaugarri estetikoak desberdinak ziren, literaturaren alorrean egiten hasi zenarekin paralelismoan. Sortzen ari zen literaturaren eta komikiaren mundutik etorritako artisten arteko harreman sakona jaioko zen.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran, Erein bezalako argitaletxeek toki berezia eskaini zieten artista hauei, formato handiko edizio zainduen bidez, gaurko idazleekin batera egindako lanetan, esaterako:

- Bernardo Atxagak idatzi eta Juan Carlos Eguillorrek ilustraturiko *Chuck Aranbarri dentista baten etxean* (1981).
- Asentxio Hondartzabalek idatzi eta Antton Olariagak ilustraturiko *Ernioko Ziripot* (1981).
- Asun Balzolak idatzi eta Jon Zabaletak ilustraturiko *Ainara eta Odeitxoa* (1982).
- Asun Balzolak ilustraturiko *Leyendas vascas* (1984).
- Mertxe Ezeizak idatzi eta Karmen Etxanizek ilustraturiko *Kirten Urdinetako Armairu Arroxa* (1983).

Une hori guztiz emankorra izan zen, eta indarra hartzen ari zen euskal narratibaren eta artisten lan itxaropentsuaren arteko harremana sendotuz zihoan. Urte horietako beste obra batzuk hauek izan ziren: Ber-



Juan Carlos Eguillor

## ↪ Hizpide ↪



Jokin Mitxelena

nardo Atxaga eta Jon Zabaletaren *Antonino Apreta* (Erein, 1982) edo Mariasun Landa eta Jon Zabaletaren *Txan fantasma* (Elkar, 1984), Ameriketara eta Europako herri batzuetara itzulitakoak.

Edizio apalagoetan bada ere, badira Jesus Lucasek ilustraturiko herri ipuin sail bat, eta Anjel Lertxundi eta Antton Olariagaren *Maria Goikoarenak eta bi* (1984), Olariagaren kode sorta zabalaren erakusgarri. Horixe da, hain zuzen, Olariaga bere obran zehar garatuz joan den ezaugarri bat: ilustrazioak egokitzeko gaitasun ia «kamaleonikoa», baina gehiago apostu esperimental edo jolas plastiko gisa, testuekiko atxikimendu gisa baino. Jon Zabaletak egin duen bezala, Olariagak etengabeko lana burutu du azken bi hamarkadetan zehar, eta biak derrigorrezko erreferentzia dira gaur eguneko ilustraziogintzan.

Erroak komikigintzan zeuzkaten bi egile horien ondoren beste asko etorriko ziren hurrengo urteetan. Hizkuntza normalkuntzarako prozesuen aurrerapenari eta euskal idazleen sendotzeari esker, komikigintza izango zen editoreek beren liburuak ilustratzeko erabiliko zuten harrobia. Hala, *Ipurbeltz* aldizkaria, haurrei zuzendua, 1977an argitaratzen hasi zen Ereinen eskutik, eta esperimentazio gune bat izan da gaur egun arte.

Izan ere, *Ipurbeltz* bi belaunaldietan zehar euskaraz ikasitako irakurle gazteen topalekua izan zen. Aldizkari horretatik pasatuko pertsonaiak estilo askotakoak izan dira, Miguel Berzosaren «Mintxo»tik, Bruguera-rako komikigintzaren zordun, A. Duesoren «Punki»ra, gaur eguneko irakurleei egokituagoa. Era berean, 1982an, Eusko Jaurlaritzak babestutako helduen alfabetatzerako argitalpen bat, *Habekomik*, gerora ilustraziogintzaren alorrera pasatuko ziren artistentzako lantoki bat gehiago izan zen.

Esan behar da helduentzako komikiaren ibilbidea oso emankorra izan dela, eta marrazkigile askoren obra gure mugetatik harantzago joan ahal izan dela, batez ere abentura eta fantasia generoetan. *TMO* bezalako argitalpenak ere aipa daitezke, *El Pappus*, *Hermano Lobo* eta besteren kodeetatik hurbilago dagoen aldizkaria. Estetika horrekin, hain zuzen, Iñaki Martiarena «Mattin» bezalako artistak hasi ziren grazia bereziz haurrentzako liburuak ilustratzen, hala nola, Maite Gonzalez Esnalen *Lapitz*



Mattin



## ↻ Hizpide ↻

*baten ibilerak* (1977). Asisko Urmenetaren obrak ere, umorezko keinuak gora behera karikatura askotan gogorra eta garratza darabilena, hartzaileengan gertatzen ari den aldaketaren lekuko da. Haurrak ez dira lehengo ume xaloak, eta egun daukaten irudi-esperientzia askoz zabala goa da. Komikigintza sakon erroturik orobat, Jokin Mitxelenaren obra ere interesgarria da, lerro balioanitza eta adierazkorra erabiltzen baitu.

Orain arte aipatu ez ditugun bi emakumeren lana ere aipagarria da: Belen Lucas, Eguillorren obrarekiko erreferentzia garbiak dituena, eta



Belen Lucas

Agurtzane Villate. Argitu behar da gutxi direla euskal haur eta gazte literatura ilustratzen lan egiten duten emakumezko artistak, areago kontuan harturik tradizionalki alor hau emakumeen eskuetan zegoela. Askotan, haur literaturaren ilustraziogintza irakaskuntzaren inguruan egon da, hau ere emakumeen ardurapeko arloa (sozialki asignaturiko baloreak, hala nola haurrekiko sentiberatasun ustez handiagoa, etabar). Beste aldetik, artearen merkatuaren ikuspuntutik, ilustraziogintza bazterrekotzat jo izan da eta, beraz,


«bertan sartzeko errazagoa» amateurismotik, horretara baztertuak izan baitira emakume artistak kasu askotan (arlotan pribatuan egin daiteke, beste zeregin batzuekin bateragarria da, etabar). Baina, gure kasuan, zirkunstantzia konkretuak beste batzuk izan dira, apika. Kontu honek eskatuko lukeen azterketa sakonean sartu gabe, baliteke ilustraziogintzan dagoen esperientzia txikiak artistak lehengo tokira eraman izana: komikigintzara, hau da, emakumezkoek gutxi landutako arlotan batera. Beste aldetik, irakaskuntz alderdiekiko harremana ere oso txikia izan da.

Haurrentzako (eta baita helduentzako) idazleen eta marrazkigileen arteko harremana zorionsua izateko arrazoia, besteak beste, antzeko egoeren menpean garatu izana da: kultur identitateak sortu eta euskara bultzatzeko beharra. Hala ere, urteak aurrera joan ahala, arazo bat aurkitzen diogu harreman horri: esperimentazio plastikorako bide gisa, haur literaturaren ilustraziogintzak ez dauka literaturatik harantzago joateko tokirik. Literatura sendotuz doan neurrian, artisten parte hartzea eskatzen du, baina zirkunstantziok ez dira egokienak.

Zoritxarrez, merkatuaren mugak direla eta, egile-liburuetako edo irudi albumetako esperimentazio plastikoa benetako luxua da. Editoreek ezin dute irakurle gutxi izango dituzten liburu garestietan hainbeste diru gastatu. Kalitatezko testuak, artistek lan askeagoa erakus dezaketen edizio luxuzkoagoetan beste dimentsio bat lor badezakete ere, paper-azalezko edizioetan ere onargarriak dira. Aukera, baldintza horien pean, garbia



Asisko



Agurtzane Villate



Pedro Osés

## ↻ Hizpide ↻



Olariaga



J. Lucas



Belmonte



Jokin Mitxelena

da. Beste aldetik, euskarazko eskolaratze gero eta handiagoak bibliografia eskuragarriak aldarrikatzen ditu, eta paper-azalezko edizioak omen dira horretarako biderik egokiena.

Beraz, komikigintzatik iritsitako ilustratzaileak konformatu behar dira liburu ilustratuak utzitako espazioarekin. Zenbaitetan, estilo aldaketa oso txikia da, zuri-beltzeko dozena erdi marrazki egiteko ia ez dago egokitzapenaren beharrik. Kasu askotan, ikusi dugun bezala, emaitza perfektua da (Mattin, Olariaga, etabar). Izan ere, Belmonte, Mitxelena edo Lucas bera bezalako artista batzuk erraztasun handiagoz moldatzen dira zuri-beltzean, haur txikiarentzako itxura tradizionaleko ilustraziogintzan baino.

Edonola ere, hori guztia denbora kontua dela iruditzen zait: artistek faltan duten espazioa irabazteko behar duten indarra nabaritzeko denbora, arte adierazpen arlo aberats eta aukeraz betetako batean mugitzen ari direla konturatzeko denbora. Argitaletxeek, bestalde, ez diote arazoari bizkarra erabat ematen; izan ere, aipatutako baldintzak tarteko, kolorea (ez bakarrik txikienezat) integratzen duten eta azalak eta edizioaren kalitatea zaintzen dituzten paper-azalezko edizioak argitaratzeko ahalegina egiten dute. Eta badira bidea egiten ari diren interes handiko artistak, hala nola Mikel Valverde, Bernardo Atxagaren Xola txakurtxoari forma eman diona, beste askorekin batera Euskal Herriko ilustraziogintzaren etorkizuna eraikitzen ari direnak.

(Manu Lopez Gaseniren itzulpen-egokitzapena)

# Euskal Haur eta Gazte Literaturaren bidetik

XABIER ETXANIZ ERLE

Gasteizko Irakasle Eskolako irakaslea (E.H.U.)



Otto Ubbelohde

**M**odu asko daude euskal Haur eta Gazte Literatura (HGL) aztertzeko, eta guk geuk azken bi mende hauetako ibilbidea egiteko, urte hauetan idazle eta idazlan garrantzitsuenak ezagutzeko HGLrekin erlazonaturiko hainbat lagunengan oinarrituko gara. Hots, hamar emakumeren bidez ikusiko dugu euskal HGLren historia eta baita oraingo egoera ere.

Eta, jakina, hamar emakumezko horietako lehena **Bizenta Mogel** da.

**Bizenta Mogel** XVIII. mendearen amaiera aldean jaio zen Azkoitian eta bere osaba Juan Antonio Mogel idazle ezagunak hezi zuen. Luis Villasantek, bere euskal literaturaren historian, honako hau dio egile honi buruz:

Vicenta nos ha dejado un libro notable por varios conceptos. En primer lugar, por estar escrito por una mujer, caso único en nuestra literatura

vasca antigua [...] Y por otra parte, supone conocimientos humanísticos, del latín sobre todo, que, en efecto, poseía la autora. (Villasante, 1979: 250-251).

Aita Villasantek aipaturiko lana *Ipui onac* dugu. 1804n argitaratua eta, aurreko urtean kaleratutako katixima batekin, euskal haurrei zuzenduriko lehen lana.

Bizenta Mogel gizonezkoena eta gainera erlijioso zen literatura batean aritu zen. Ohiko estereotipoak apurtu zituen haurrentzat eta hezitzeko asmoz eginiko obra horrekin. Izan ere, garai horretan euskaraz argitaratutako ia guztia erlijioarekin erlazonaturiko produkzioa zen, hemengo burgesiak gaztelaniaz idazten zituen bere obrak XIX. mendean eta XX.eko lehen herenera itxaron beharko dugu produkzio nabarmeneko literatura ez-erlijioso izateko euskal letretan. I. Sarasolak (1975) eginiko ikerketa batean argi



## ↻ Hizpide ↻

eta garbi geratzen da arestian aipaturikoa. Edo, nahi izanez gero, ikerketa horretatik atera dezakegun ondorengo eskeman:

| garaia          | argitara. liburuak | ken berrargital. | jatorriz euskaraz | liburu ez-erlijiosoak |
|-----------------|--------------------|------------------|-------------------|-----------------------|
| 1545-1600       | 3                  | 3                | 1                 | 1                     |
| 1600-1650       | 11                 | 7                | 6                 | 0                     |
| 1650-1700       | 25                 | 13               | 6                 | 1                     |
| 1700-1750       | 34                 | 17               | 5                 | 1                     |
| 1750-1800       | 103                | 43               | 24                | 1                     |
| 1800-1850       | 186                | 47               | 26                | 4                     |
| 1850-1900       | 225                | 64               | 33                | 4                     |
| <b>DENETARA</b> | <b>588</b>         | <b>194</b>       | <b>101</b>        | <b>12</b>             |

Hau da, 1545ean Etxeparek euskarazko lehen liburua idatzi zuenetik 1900era arte, ia 600 liburua argitaratu ziren euskaraz, horietatik 12 bakarrik ziren ez-erlijiosoak, horietako bat Bizenta Mogelena (eta 12 liburu horietatik 4 bakarrik ziren literatur liburuak).

Jakina, datu hauek ulertzeko kontuan izan behar dugu herri txikia gabela (euskal hiztun kopuru txikia duen herria), duela gutxi arte alfabetatu gabea eta gainera euskarak ez duela harreman esturik inguruko hizkuntzekin.

Bakarrik egon gara, kanpora begira, baina baita gure artean ere. Euskara batua duela 30 urteko kontua da eta 1969 baino lehenagoko literatura euskalki ezberdinetan idatzia da, Bizenta Mogelen *Ipui onac* hau bezala. Are gehiago, zenbait idazlan herri edo eskualde bateko biztanleek zuzenduak izan dira (J. San Martinek 1957an idatziriko *Pernando Plaentziarra* esaterako). Sakabanatze honek eta merkaturaren txikitasunak eragin dute euskal literaturak garrantzi txikia izatea gizarte eta ekonomia mailan.

Hizkuntza gutxituen ezaugarrie-

kin eta ia literatur tradizioz gabe, bere testuingurua sortu beharko du euskarazko HGLren historiak. Egia da, alabaina, ahozko literaturak garrantzi handia izan duela nekazari giroko gizartean duela oso urte gutxi arte.

Hementxe kokatzen da *Ipui onac*, halako izenburua duena bere egileak «gozaraziz irakatsi» nahi duelako. Bertan Esoporen 50 alegia –eta euren irakaspenak– heziketa helburu argirik ez duten eta beraz gazteentzako «kaltegarriak» diren ahozko ipuinei kontrajartzen dizkie.

XIX. mendean zehar Iturriagak eta Goietxek alegi bildumak argitaratu zituzten (La Fontaineak baino 200 urte geroago eta Samaniegok edo Iriartek baino 50 geroago), baina idazlan didaktiko hauek kenduta, ez dago beste inolako argitarape-  
nik era batera edo bestera haurtzarorekin erlazionaturik. 1890ean A. Apaolazak *Patxiko Txerren* argitaratu zuen, nekazari giroko eleberria konnotazio erromantiko nabarmenak dituen eta Truebaren *El Judas de la casa* eleberrian oinarritua. Mende honetan gazteriak bereganatutako idazlanik izan ba-



Txiki

## ↪ Hizpide ↪

zen, *Patxiko Txerren* izango zen zalantzarik gabe. Giza gatazka, ona eta gaiztoaren arteko borroka, testuaren bizitasuna... uste hori indartzen duten osagaiak dira.

Bestalde, 1877an Euskal Herrian bizi zen W. Webster predikatzaile ingelesak *Basque Legends* argitaratu zuen, euskal ipuin herrikoien antologiari onenatariko bat.

Ikus daitekeen bezala, gutxi dira haur eta gazteentzako euskarazko argitarapenak. 1876an foruak galtzeak eta mende amaieran abertzaletasuna sortzeak XX. mendearen lehen urteetan HGL berria sortzen hastea ekarriko zuten. Berau gai eta teknika aldetik une hartan sortzen ari ziren lan unibertsaletatik edo aurreko urteetan aritaratu zirenetatik urrun zegoen gai eta teknika aldetik.

Testuinguru honetan gure bigarren gonbidatua topatuko dugu, **Tene Mujika** idalea.

Orain arte idatzitako euskal literaturaren historietan **Tene Mujika** edo ez da aipatzen edo pasadan soilik aipatzen da. Izan ere XX. mendearen hasieran euskal letretan mugimendu handia izan zen. Kirikiño bezalako narratzaileen eskutik eta Lizardi edo Lauaxetaren mailako olerkarienetik, euskal letrek itxaropen aldia bizi izan zuten.

HGLn idazlan ugari sortu ziren eta bertan tradizioa eta modernotasuna lan europarren itzulpenekin batera zebiltzan. Testuinguru honetantxe argitaratu zuen Tene Mujikak *Nekane edo Nesketzaren babesa* (1922). Haurrentzako antzerki lan honetan, Nekane hiru neskekin duen elkarriketaren bitartez, egileak mende hasierako abertzaletasunaren bi ideia nagusiak sartu nahi izango dizkigu: a) euskararen defentsa eta b) erlijioa. Helburu moralizatzaile eta ideologikoa agerikoa da hau bezalako pasarteetan:

Nere aita beti esaten ari dana, auxe berau da. Euskera maite bear degula... euskera dala gurea... Eta zaletu gaitian nunbait, euskerazko idazki onelakoak irakurtzeko ematen dizkigu... ;Ze politikak diran guztiak! ;Batez ere irakurten nagon au! ;Zein izkuntz ederra dan euskera! (Tene: 5-6)

edo idazlanaren azkenean, jarrera bihozbera kristauak zerua lortzeko bide gisa bultzatzen duenean.

Tene Mujika bere garaiko emakumea zen, baina ez edonolako; gaztea zelarik jendea harritzen zuen liburutebietara joaten zelako. Gainera zaletasun kulturala eta politikoa ere bazeukan, garai hartan bitxia izan arren. Mendeko lehen hamarkadetan hizlari abertzale trebea izan zen. Bere obra, aldiz, garaiko HGL gehiena bezalako da: hezitzeke lanak dira kutsu erlijioso handi eta ideologia abertzalearekin.

Baina mende hasierako idazlan guztiak ez zuten helburu bera: *Txomin arlote* edo *Dar-Dar-Dar* bezalako ipuin herrikoien argitarapen zainduak, Txikik bikain ilustratu zituenak, literatura onaren eredu dira. Berdin esan behar da garaian egindako Grimm anaiak, O. Wilde, Croce eta barren ipuinen itzulpenez, Tene Mujika bezalako egileengan, antza, halako eragin txikia izan bazuten ere.

Aipatutako itzulpenek eta ipuin herrikoien errekopilazioek (Barbier eta Mayi Ariztiarenak na-

barmenduko genituzke), euskal HGL izan zitekeenaren oinarriak ezarri zituzten, haurrentzako liburu sortzeekin batera edo HGLra ekarritako literaturaren barruan leudekeen idazlanekin batera.

Ixaka Lopez-Mendizabal bezalako pertsonen lana ildo beretik doa. Haurrentzako liburuak kale-ratuz, haurrentzako merkatu hasi berriaren beharrak asetzeko argitarapen politikari ekin zioten. Argitarapenok zenbaezinak dira, baina



Txiki

denen artean *Xabierto* (1925) irakurketa liburua gailentzen da. Idazlan hau, hainbat aldiz berrargitaratu eta haurren nazioarteko urtean (1979) saritu zutena, 138 testuk osatzen dute eta zenbait hamarkadatan euskaldun anitzen irakurketa liburua izan da.

Bestalde, Tene Mujikaren *Nekane eta Neskutzaren babes* bezalako lanen ondoan, haurrei garbi zuzenduta, XX. mendearen lehen urteetan irakurle gazteek irabazitako literatura daukagu. Beronen bi liburu adierazgarrienak *Abarrak* (Kirikiño, 1918) eta *Pernando Amezketarra* (G. Mujika, 1927) dira. Biak ere nekazari munduan girotuta daude eta ageriko izaera umoretsua dute. *Abarrak* umorezko pasadizo bilduma da, txiste eta zelebrekeriekin. *Pernando Amezketarrak*, berriz, egoera barregarriak biltzen ditu; protagonistaren azkartasunak irria sortzen dio irakurleari.

Bi idazlanok arrakasta handia izan zuten: *Abarrak* 1930ean argitaratu zen bigarrenagoz, bere egilea hil eta urtebetera, eta 80ko hamarkadaren hasieran Elkar argitaletxeak bilduma berri bati ekin zion bi liburuokin, urte horietan 10 argitarapen baino gehiago atera zirela. Gaur egun, *Pernando Amezketarraren* bizipen eta burutapenentan oinarritutako telesail bat ere badago.

Hala ere, euskal letretan gertatzen ari zen HGLren sortzea Espainian 1936ko gerrak eta ondoko errepresioak eten zuten, Iparraldean bigarren mundu gerrak izandako eragina ahantzi gabe. Horrek guztiorrek prozesuaren haustura ekarri zuten, gure lorategi txikia basamortu idor bihurtuz.

**Julene Ugarte** gure hirugarren gonbidatua da. Bere izena ez da inongo liburutan ageri, lan isila egin du eta historialariak ez dira hartaz ohartu.



Txiki

Julene gerra ondoko andereño bat da. Beste batzuk bezala hizkuntzaz arduraturik zegoen eta haurrentzako euskarazko liburuen beharra ikusten zuen. Baina garaia etsitzeko modukoa zen, euskaraz egitea debekatuta egotea ezaugarri zuela.

1948 arte Pirinioen alde honetan haurrentzako euskarazko idazlanik ez zen argitaratu, eta argia ikusi zuten lehenak erlijio liburuak izan ziren (*Iesus Aurraren bizitza*, 1948; *Aurren Eliz-liburutxoa*, 1949; edo *Kristau-Ikasbidea bertsoetan*, 1950). Berriz ere Eliza eta

liburu erlijiosoak ziren euskal esparruaren jabe.

Haurrentzako literatur ekoizpena ia hutsaren hurrengo zen: Oxobi behenafarrak idatzitako *Haur elbe haurrentzat* (1944) eta argazki handidun *Leoi-kumea* ipuina, Orixek 1948an Parisen zegoen Eusko Jaurlaritzaren mandatuz idatzitakoa. Azken hau, nonbait, liburu ilustratu baten itzulpena edo egokitapena da eta Julene Ugartek eta beste andereño batzuek exilioko Eusko Jaurlaritzari egindako eskariaren emaitza. Oxobiren liburua bezala, Espainiatik kanpo argitaratu zuten debekuak gainditzeko, baina hala ere nekez iritsi ziren biak gartzetxoenganaino.

Egoera larri hau ez zen Hego Euskal Herrikoa soilik; garaiko gaztelaniazko HGLk erregimenak ezarritako zama ideologiko handia zuen (García Padrinok *Flechas y Pelayos* aldizkari sortu berriaren helburuak aipatu zituen: «un medio para la difusión de sus mensajes ideológicos destinados a la infancia [...] contribuir a moldear la generación que ha de hacer la historia del mañana», 410, 411) eta 1945 eta 1950 arteko ekoizpena ez zen iristen urteko 100 liburura (Cendán, 1986: 69).

Gainera, literatura katalanaren kasuan Teresa Rovirak ongi adierazten duen bezala (Rovira, 1988: 460), ia ez dago esaterik exilioko edo ezku-



tuko HGL izan zenik. Beraz, literatur egoera bere onera etorri arte itxaron beharra dago HGLz hitz egin ahal izateko.

Gerra osteko euskal HGLren garrantzizko lehen aldakuntza 50eko hamarkadaren hasieran izan zen (aro hau bateratsu dator García Padrinok bere lanean, 513, aipatzen duen «askapen intelektualarekin»). J. Etxaidek *Alos-Torra* (1950) argitaratu zuen, gazteentzako zat jo litekeen lan historikoa (80koen hasieran HGLko bilduma batean berrargitaratu zen); baina egiazko aldaketa «Kuliska sorta» estilo eta gai anitzeko bildumaren eskutik etorri zen; bertan HGLk eta literatura irabazia delakoak beren lekua izan zuten. Bildumako lehen idazlana itzulpen bat izan zen, *Noni eta Mani* (1952), Svensson jesuitarena Plazido Muxikak –jesuita bera ere– itzuli zuena eta beste baloreen gaintik kontu erlijiosoak goraltzen dituen. Hurrengo urtean, Etxaidek umorezko pasadizo bilduma bat eman zuen, *Purra! Purra!* (1953) eta horrela umorezko idazlan sail bati hasiera eman zion euskal HGLn. Joera honek ia gaur egun arte iraun du, ekoizpenaren barnean pisu handia edukiz.

Etxaidek, 1984an argitaratutako elkarrizketa batean, umorezko errelatuok euskaraz eman ahal izateko gaintitu beharreko zailtasunak erakutsi zituen.

Artetxeri esker *Alostorra* argitaratzea lortu nuen (1950). Denborak zailak ziren izugarri. Gero *Purra! Purra!* Atera nahi izan nuen eta Donostian baimena ukatu egin zidaten. Orduan Madrilera jo nuen zuzen eta influentziaz baliaturik lortu nuen baimena, baina liburuaren itzulpena eginaraziz (1953).” (Etxaide: 1984: 8).

Iraunkortasuna, tema eta influentzia politikoak beharrezkoak izan ziren 25 narrazio ho-



Galdos

riek kaleratu ahal izateko; baina idazlan honen ondoren estilo bereko beste batzuk etorri ziren, hala nola, *Pernando Plaentxiarra* (1957), *Ipuin barreka* (1958) edo *Zirikadak* (1958). Guztietan literatura hurbildu nahi zitzairen gazteei umorearen bitartez.

Euskaraz argitaratzeko debekuaren aurka borrokatu zen erakundeetako bat, Julene Ugarte bezalako andereñoek irakurgaiak izan zitzairen mugitu zena, Euskaltzaindia izan zen: lehiaketan eta bere argitarapenen bidez gutxieneko ekoizpenari eusten lagundu

zuen. Horrela, 1955ean, literatur lehiaketa bati esker, *Amabost egun Urgain'en* argitaratu zen, euskarazko lehen eleberrizko poliziakoa. Poe, Chejov, Alarcón, Verne, Simenon edo Dickens eraginarekin, Loidik egindako idazlan honek arrakasta handia izan zuen Euskal Herrian (1958an gaztelaniaz ere argitaratu zen) eta katalanera itzultako lehen euskal idazlana izan zen (1961).

Euskarazko liburuaren gabezia zela eta, Euskaltzaindiak 1956an *Abarrak. Cuentos y relatos. Ipuinak eta kondairak* eman zuen. Bertan Kirikiñok mende hasieran idatzitako ipuinetako batzuk aurki daitezke. 1957an, berriz, *Euskalerriko ipuinek. Selección de cuentos populares vascos* atera zuen «para el agrado de los lectores menudos y los mayores, además de elemento de aprendizaje para quienes están estudiando la lengua vasca», lanaren egilea den A. Irigaraik sarreraren dioskunaren arabera.

Literatur esparrua (eta politikoa) Euskal Herrian emeki-emeki garatuz zihoan eta hasierako pasadizoak eguneroko bihurtu ziren. Orohar handiki hazi zen idazlan ekoizpena eta HGLn aldaketa asko izan ziren. 1957an, esate batera, «*Umetxo*en ipuiak» bilduma kaleratu zen orrialde osoko eta koloretako marrazkiekin, animaliak abentu-

## ↪ Hizpide ↪

retako protagonistak zirela. 1959an beste erlijio gizon batek, Felipe de Murieta kaputxinoak, euskarazko lehen haur aldizkaria argitaratu zuen: *Umeen Deia*; lau orrialdeko hilabetekaria Nafarroako erakunde ofizial batek (Príncipe de Vianak) diruz lagundua. 65 zenbaki kaleratu ziren eta aldizkaria bere egilea hiltzearekin batera desagertu zen.

Baina egiazko aldaketa beste emakume bat euskal letretara iristean gertatu zen, **Marijane Minaberri**.

**Marijane Minaberri** berriki omendu dute Euskal Herrian egindako HGLren lehen jardunaldietan. Oskorrik disko bat eskaini berri dio eta antzerki talde batekin batera bideo bat egin dute Minaberriren kantuekin.

Izan ere, Marijane Minaberri, aldizkari batean idazkari lanak egin zituen irakaslea, haurrentzako hainbat ipuin, olerki eta antzerki libururen egilea eta urteetan haur aldizkari baten erredaktorea, euskarazko HGLren aintzindaria izan zen. *Itchulingo anderea* (1963) ipuin bildumaz eta bi urte geroago *Xoria Kantari* (1965) liburuan emandako olerkiez, emakume honek atea zabaltzen zizkien irakurtzearen gozamenari eta entretenigarritasunari lehentasuna emanez ordura arte nagusi zegoen korrante hezitzailearen aurretik.

Minaberrik euskarazko haur literatura sortu zuen zeren eta, bere lanean asmo moralizatzaileak ageri bada ere, hizkuntza zainduak, deskribapenak eta narrazioak berak egilearen asmo behinena erakusten baitigute; estetika. Asmo hori areagotuta ikusten da *Xoria Kantari* olerki liburuan. Bertako 23 olerkien artean irakurleak errepikapen,

onomatopeia eta errima anitz eriden ditzake eta horrela olerki xumeok biziki egokiak dira haurrentzat. Hone hemen horren adibide bat:

EURIA  
Plik! Plak! Plok!  
Euria  
Xingilka  
Dabila.

Plik! Plak! Plok!  
Jauzika,  
Punpeka,  
Heldu da.

Plik! Plak! Plok!  
Pasiola  
Behar da  
Atera.

(Minaberri, 1965: 9).

Jakinekoa da euskal letretako aldaketa hau nazioartean gertatzen ari zenaren ildotik zihola. 1955ean IBBY sortu zen, 1957an INLEk Haur eta Gazte Literaturaren Batzordea sortu zuen, 1959an Carmen Bravo-Villasantek bere *Historia de la literatura infantil* argitaratu zuen, etabar. Gainera, hamarkada honetan gertakari sozio-politiko asko jazo ziren (Vietnamgo gerragatiko protestak, 68ko maiatza, Marcuseren ideiak, etabar) eta zuzenean eragingo zioten HGLri.

Euskal Herrian, bestalde, ikastolak sortzen hasi eta legeztatzerik ez izan arren era positiboan onartzen ziren. Ikastetxeok irakaskuntzarako eta irakurtzeko materialik batere ez zeukaten euskaraz eta horregatik hainbat urtez haurrentzako (eta haziagoentzako) idazlanen ekoiz pe-



Henri Lauh e

naren egiazko motoreak eta kontsumitzaileak izango ziren.

Zoritzarrez, Minaberrik ez zuen garaiko euskal HGLren jokaeretan eragin handirik sortu, agian une hartako egoera sozio-politikoagatik edo egilearen –bere euskalkiaren– eta irakurleria potentzialaren artean zegoen tarte handiagatik. Hegoaldeko lau probintzietan gertatzen ari zen zabaltze politikoak bidea zabaldu zien hainbeste urtez jazarrita egondako ideia abertzaleak bizitu nahi zituzten eleberri historikoei. Urte batzuk geroago ere, 1976an argitaratutako Guillermo Tell-en itzulpenean honela jarri zen kontrazalean:

Gilen Tell, mendi tartean izkukuriko herri txiki baten kondaira da; herri hura, hango abertzaleek, askatasunera eraman nahi izan zuten, etsaien erasoaldi eta gogorkeria guztien aurka.

Baina Minaberriren eta 1975 urtearen artean hainbat aldaketa daude, pedagogia sortzailetik Freineten ideietatik... datozenak gehienbat. Horrekin batera La Galera bezalako argitaletxeen lana, berez espainiar estatu osoan izan zuen eraginaz gain, lankidetzan hainbat liburu kaleratu baitzituen euskaraz irakurri nahi zuten haurrei aukera handiagoa eskainiz.

Haurrentzat idazten 30 urte baino gehiago daramatza Marijane Minaberrik, honako hau esatean erakusten duen samurtasunarekin:

Katemea bere katakumetxoekin ikusi ez edo gereziak arbola-tik zuzenean hartu ez dituen haurrari zerbait falta zaio.

Idazle honek gaur egun lanean jarraitzen du, proiektu batzuk eskuarte.

Gure ibilbideko bostgarren gonbidatuak, aldiz, **Lurdes Iriondo** idazleak, urteak dira ez duela deus ere argitaratu.

1965ean kultur proiektu baten alde lanean zebiltzan lagun batzuk bildu egin ziren *Ez Dok Amairu* taldea osatzeko; Oteiza eskultorea, Xabier Lete olerkaria, abeslariak, pintoreak... Guztiek ere kezka kulturala zutela. Talde honetako kideen artean HGLko idazle eta kantaria zen Lurdes Iriondo zegoen. 60ko hamarkada amaieran «Euskal Herriko Joan Baez» zela esaten zen eta Madrilen eta Bartzelonan argitaratzen zen *Diario femenino* agerkarian hauxe azaldu zen berataz:

Gazte independentea da, edertasun bitxikoa, euskal kantagintzaren ordezkariarik garrantzizkoena da.

Baina guri gehiago interesatzen zaigu Lurdes Iriondo idazlea, bere obraren gehiena Francoren heriotza aurretik eta ondoren egin zuena 70eko urteetan. Liburu gehienak «Kimu» HGLren bilduma sortu berriarekin kaleratu ziren, Mensajero argitaletxe erlijiosoarekin, alegia. Bilduma honek bere lehen lanetan irakurlea hezitzea zuen helburu eta, horrela dibulgaziozko lanekin batera (literatur historiako liburuak, esaterako), hainbat eleberri historiko argitaratu ziren (*Amaia*, *Antso Gartzreiz*, *Eneko Haritza*, *Harkaitz elurra ari zueneko haurra*,...). Baita hainbat ikastoletako haur eta gazteek idatzitako ipuinak eta olerkiak ere. Eta Lurdes Iriondok idatzitako antzerki lanak ere bai. (*Martin Arotza eta Jaun Deabrua* eta *Sendagile maltzurra*, 1973; *Buruntza azpian*, 1979), ikaste-txeetan antzeztu ahal izateko.

Lurdes Iriondoren ipuin labur batek, *Asto baten malura* (1975), euskal munduan gertatzen ari zen aldaketaz ironizatzen zuen, gizarte erruraletik industrialera igarotzen ari baitzen berorren abantaila eta desabantailekin. Aitona eta





## ↪ Hizpide ↪

astoa borrokan dabilta berenari eusteko, gazteriaren eta makinaren aurrerapenaren aintzinean. L. Iriondok bere ipuinean erakusten digun aldaketa, gizartean benetan gertatzen ari zena erakusten digu neurri txikian bada ere.

Ikastoletan izena ematen zuten haurren kopurua gora zihuan bizi-bizi. 1970ean ikastoletako 11.885 baldin baziren, 1974an ia 27.000 ziren eta 65.000 1980an. Gainera, 1979an elebitasunerako dekretua aldarrikatu zen eta horren bitartez euskararen irakaskuntza arautu zen ikastetxe guztietan. Bestalde, Euskaltzaindiaren babesean sortutako helduak alfabetatzeko koordinakundea halako neurrian hazi zenez, erakundeak berak ezin zion egoki erantzun bere zentrotan euskara ikasteko izena ematen zuen 45.000tik gorako ikasle kopuruari.

Gertakari hauek guztiek HGLn eragin zuzena zuten: irakurgaien eskaria hain handia zen eta euskal argitaletxeen azpiegitura hain ahula, ia ezinezkoa zen ongi erantzutea. Gainera, garai hartanxe estatuko zenbait argitaletxek bere liburuak lau hizkuntzetan kaleratzeari ekin zioten; euskararen kasuan arrakasta handirik gabe (itzulpen kaskarrak, hizkera desegokia irakurleentzat, promoziorik gabeko argitarapenak, etabar).

70eko hamarkadaren amaieran HGLren alorren hiru euskal argitaletxe garrantzitsu sortzean, sektorea berregituratze (edo egituratzen) hasiko da. Hordagok, politika liburuak saltzen hainbat urtetan arrakastatsu zebilenak, HGLko bilduma bati ekin zion eta oso denbora gutxian literatura unibertsaleko 40 liburu inguru eman zituen (euskarazko bost original bakarrik argitaratu ziren, Txomin Peillenen hiru lan eta J. Etxaideren bi). Handik gutxira, ordea, argitaletxea krisian sartu eta desagertu egin zen. Letren mundutik Lurdes



Asun Balzola

Iriondo desagertu zen bezalaxe. Baina aldaketek bi euskal argitaletxe handien sortzea ekarri zuten: Elkar eta Erein gauzatu ziren.

Bi argitaletxeok 1980tik aurrera HGLren indartzea eragin zuten. Biek ere lanari ekin zioten haurrentzako liburuak bultzatuz (nola literatura hala testu liburuak). Erein argitaletxeak, gainera, 1979an *Ipurbeltz* sortu zuen, urte hartan kaleratu zen *Kili-Kilirekin* batera, horrela haur-

rentzako euskarazko aldizkariak sortuz (Jose Antonio Retolazak Kili-Kiliren zenbakiren bat argitaratu zuen 1966an, baina zentsuratu egin zuten).

80ko urteen hasieran, argitaletxe hauen sortzearekin batera, HGLko idazle berri bat bere ipuinak argitaratzen hasi zen: Mariasun Landa, gerora atzerrian gure ordezkariarik onena izango zena, B. Atxagarekin batera.

**Mariasun Landa** Parisen lizentziatutako gazte bat da, euskara handitan ikasi du eta Euskal Herrira itzultzean Zarauzko ikastolan klaseak ematea erabaki du. Freineten teorien, Rodariren tekniken eta irakurgaien eskariaren eraginez, ikastola horretako irakasle talde batek material asko bildu eta sortu zuen. Halabeharrak elkartu zituen Imanol Urbietan pedagogoa eta musikari handia eta geroko HGLren argitaratzaile eta idazle talde bat: Anjel Lertxundi, Joxean Ormazabal, Txiliku, Juan Martin Elexpuru eta Mariasun Landa. Giro hartan Mariasunek ikasleentzat idazteari ekin zion bere testuak emeki-emeki gehiago landuz joateko eta 1982an ipuin lehiaketa batera aurkeztu zuen idazlan berritzaile bat: *Txan fantasma*. Istorioak Txan fantasmaren eta arazo afektibo handiak dituen Mentxu neskatoaren arteko harremana kontatzen du eta egiazko aldaketa izan zen

euskal literaturan. Errealismo kritikoak estetika-rekin konprometituriko literatura modernoari haisera eman zion.

Irakurleen gaineko eragina areagotzeko baliabide literarioak erabiltzea, literatur hizkuntzaren lehenasuna eta gaur egungo gaiak (geure izate sakonena, geure bildurra, arazoak, maitasun edota komunikaziorik eza...) dira euskal HGLren modernitatearen hasiera.

Bere ibilbidearen hasieran Mariasun Landa Anjel Lertxundi (Rodariren eta ahozko literaturaren eragin garbiarekin) edo B. Atxaga bezalako idazleek lagundu zuten. Egile hauek, haur literaturan bezala, eragin handia izan zuten helduentzako euskal literaturaren aldaketetan.

Mariasun Landaren obrak (Carver-ekin ere gonbaratu dute Frantziako kritika batean) xumetasun landua du helburu, kritikotasuna, ironia eta umorea aherentzi gabe. Berau bere idazlanetan nabari da, hain gogoko duen Christine Nöstlinger idazle austriarraren idazlanetan bezala. Baina testu zati bat azalpen mordoa baino adierazkorragoa izango delakoan, hona hemen *Iholdi* liburuaren zatitxo bat:

Kalean dagoen auto zahar abandonatu batean sartu gara jolastera. Pellok eta beste mutilek esan dute indioetara jolastuko garela eta auto zahar hura dilijentzia bat izango zela. Neskak dilijentzian sartzeko eta beriek atakatuko gintuztela...

—Eta gero, zer?

—Zuek indioak ikusi eta desmaiatu egin behar duzue.

Eta guk horrela egin dugu.

Gero, nik esan dut alderantziz egiteko, eta Pellok esan du ezetz. Beraiek ez zirela desmaiatzen. Eta neskak haserretu gara indioena egin nahi genuelako eta beraiei tokatzen zitzaielako dilijentziakoak izatea.

Azkenean onartu dute, baina autoa inguratu dugunean, atek zabaldu eta tiroka hasi dira. Inor

ez da desmaiatu, eta gu berriro haserretu gara. Mutilekin ez dago jolasterik. (Landa, 88: 10-11)

Jakinekoa da gaur egungo literatura honekin batera idazlan klasiko eta tradizional anitz argitaratzen jarraitu dela. Arestian aipatutako *Abarrak* eta *Pernando Amezketarra* sarri berrargitaratu dira urteotan. Gaur egungo egileen idazlan batzuek, hala nola *Proxpero* (1988), *Txerrama errudun* (1994) edo *Murtxanteko lapurrak* (1988), duela ehun urte bezalako nekazari giroko gizartea isladatzen dute. Bestalde, ipuin herrikoietan oinarritutako liburu asko eman dira. Bestalde, ipuin herrikoietan oinarritutako liburu asko kaleratu dira, gehienak ere ikertzaileek mende honetan zehar egindako lanaren emaitzak direnak; baina aportazio berri interesgarri eta baliotsuak ere izan dira, adibidez, Joxe Arratibelek egindako *Kontu zaarrak* (1980) ipuin bilduma, oso ipuin ezagunen euskal bertsioak eskaintzen dizkiguna, besteak beste, *Ali Baba eta berrogei lapurrak* bere «abrite portas kris-kras» horrekin, edo «Marixor» ipuina, gure Errauskine. Arratibelek, gainera, ipuinen freskotasanari eta originaltasunari eutsi die 50 urtetan zehar.

Honaino iritsita, gure zazpigarren gonbidatua aurkeztuko dizuet; Arratibelen mireslea da eta hogeitau urte daramatza argitaratzaileen eta irakurleen arteko bitartekaritza lana egiten.



Olariaga

**Maribi Legarra** liburu saltzaillea da eta, besteak beste, ponentzia hau historian zehar hainbat pertsonen bidez egindako ibilbide gisa aurkezteko ideia zor diot. Hogeitau urteotan Maribi Legarra HGLren aldaketen lekuko izan da, aldaketa koalitatiboena bai, baina aldaketa koantitativoena bereziki. Idazlanen kopuru hazkundera harrigarria da. Euskal HGLn ezer gutxi argitaratzen diren urteko

## ↔ Hizpide ↔

300 argitarapenetara pasatu da. Ondoko eske-  
man ikus daitekeen bezala, 1980tik aurrera HGL  
ekoizpenean hazkunde handia dago.

Duela 20 urte, Maribi Donostiako liburuden-  
da batean liburuak saltzen hasi zenean, titulu guz-  
tiak non zeuden jakiteaz gain, egile gehienak eta  
beren idazlanen argumentuak ere ezagutzen zi-  
tuen.

Gaur egun hori ezinezkoa da: egunero lan bat  
argitaratzen da eta alor honetan lanean dabil-  
tzen argitaletxeak ugariagoak dira urtetik urtera. Eus-  
kal Herrian sortutako argitaletxeek gain, estatuko  
etxe komertzial garrantzitsuenek (S.M., Anaya,  
Alfaguara, Edebé, Everest, Bruño...) euskarazko  
beren bildumak sortu dituzte. Bestalde, egile  
kopurua ekoizpenarekin batera hazi da. Ez ordea  
generoen ugartasuna. Egun narratibak ekoizpe-  
naren % 99 hartzen du eta urtean kaleratzen di-  
ren olerki eta antzerki liburuak hiru edo lau bai-  
no ez dira.

Nolanahi ere, salmentan Maribik antzeman  
arren eta narratibakoak bezain ugariak ez izan  
arren, badaude haurrentzako olerki liburuak ur-  
teotan dezenteko arrakasta izan dutenak. 1995ean  
Hiperión argitaletxeak Juan Kruz Igerabideren  
*Begi-niniaren poemak* idazlanaren argitarapen ele-  
biduna egin zuen. J.K. Igerabide finalista izan da  
bi urtez jarraian haur literaturako sari naziona-  
lean. Bere idazlan honetan ekialdeko literatura-  
ren eragina nabaria da (tradizionalarena bere bi-  
garren liburuan: *Egun osorako poemak eta beste*;  
eta nonsense-arena *Haur korapiloak* idazlanean).  
Hona hemen horren erakusgai bat edo beste:

Belarri handi bat.  
Belarritik begira begi bat.  
Begiaren barruan aho handi bat.  
Eta han arnasa, eta hortzen distira,  
eta mihia, agertzeko zorian.  
Eta ahoa begi bat da  
belarri handiaren barruan.

Baina agian Maribik azken urteotan aldake-  
tarik handiena itzulpenen kopuru hazkundean  
nabarituko zuen. Izan ere, ekoizpen gaintimen-  
sionatu hori ulertzeko, euskarara itzultitako ida-  
zlanei begiratu behar zaie: duela hamar edo ho-  
gei urte zegoen eskari handitik, merkatuaren ase-  
tzera pasatzen ari gara. Euskaraz ez zeuden kla-  
sikoak itzuli dira eta egungo literaturako idazla-  
nak ere bai, bai nazioarteko egileena bai espaino-  
lena.

Baina gainera HGLren merkatua euskal letre-  
tako garrantzitsuenetako bat da. Adibide gisa  
1996ko ekoizpena hartuz gero, urte hartan argi-  
taratu ziren 1100 liburuetatik, % 26,5 (291)  
HGLkoak izan zirela ikusiko dugu.

- 1- Testu liburuak (% 30,2)
- 2- HGL (% 26,5)
- 3- Helduentzako literatura (%20)
- 4- Gizarte gaiak (%16)
- 5- Gainerakoak (% 7,3)

Eta HGLren %26,5 horren osaerari dagokio-  
nez, honela zatitzen da:

HGLren 1996ko ekoizpena.

- berrargitarapenak: 72 (%24,5)
- itzulpenak: 170 (% 77,6)
- sortuak: 49 (%22,4)

Itzulpenen nagusitasuna agerikoagoa da alor  
batzuetan. Baina gauza bat sintomatikoa da: eus-  
karara itzultitako idazlanetan ia ez da ageri ber-  
tako ilustratzailerik.

Eta hemen, nola ez, ilustratzaile bat aurkez-  
tuko dizuet.



## ↪ Hizpide ↪

**Belen Lucas** ilustrazio munduan emeki-eme-ki txoko bat bereganatu duen irudigilea da. Euskal Herriko bere lankide gehienen moduan, testu liburuak ere ilustratu ditu, pintura eta ilustrazio erakusketak egiteaz gain.

Baina Belén Lucas kalitatezko ilustratzailea izan arren, Anton Olariaga, Jon Zabaleta, Jesus Lucas etabarren modukoa bada ere, nahiz eta liburu askotan irudigintzarako bere trebetasuna erakutsi, ezin izan du haur literaturako inolako albumik ilustratu. Euskal HGLn ez baita haurrentzako albumik sortzen; salbuespen gisa agertzen da kolorea ilustrazio batzuetan, baina euskal ilustratzaileek ia beti zuri-beltzean lan egin beharra dute nahitaez. 80ko hamarkadaren hasieran, ordea, ez zen horrela jokatu eta hainbat argitaletzek kalitate handiko liburuak atera zituzten haur literaturaren aldeko apustua eginez. *Ernioko Ziripot* (1981), *Udaberria* (1981) eta *Lotarra joateko ipuinak* (1982) Kultura Ministeritzak saritu zituen. Gaur egun esku bateko hatzez zenba daitezke euskaraz urtero argitaratutako haur liburu ilustratuak. Merkatuaren legeek biziki zailtzen dute txikienentzako liburu ilustratuen ekoizpena eta are gogorragoak dira gutxiengoaren literaturetan... beren ekoizpena kanporatzen asmatu ez badute, gainera.

Horrela, ia oharkabean, euskal GHLk eginkizun dituen gauzetako bi aipatu ditut: album ilustratuen berezko ekoizpena eta geure literatura ezagutzera ematea euskararen mundutik at. Gaur egun inork ez du zalantzarik Euskal Herrian badirela kalitate handiko lanak egin litzaketen ilustratzaileak (beste hizkuntza batzuetan argitaratutako hainbat liburuk jatorrizko ilustrazioak gorde dituzte), baina merkaturak mugatua izateak berarekin dakar itzulpenak

bakarrrik argitaratzea (koedizioak dira eta originalak normalean beste hizkuntzetakoak). Azken hauen artean, berriz, nagusi dira gaztelania eta katalanetik datozenak.

Manu Lopez Gaseni irakaslearen ikerketa baten arabera, 1976a eta 1995a bitartean itzulitako HGLren idazlan ilustratuen sailkapena honako hau da:

Zortzi urte arteko HGLren lanak, hizkuntzotatik itzuliak:

gaztelaniatik %40,2  
katalanetik % 22,8  
ingelesetik % 16  
frantsesetik % 12,8  
alemanetik % 2,6  
gainerakoetatik % 6,2

Ikus daitekeen bezala, euskaraz argitaraturiko liburuen bi heren jatorriz gaztelaniaz eta katalanez idatziak dira. Esku bateko hatzez zenba daitezke, aldiz, hizkuntza horietan kaleratu eta Euskal Herriko egileek ilustratu dituzten haurrentzako liburuak.

Zorionez, euskarazko literaturan aurrera goazela dirudi eta apurka-apurka gure mugetatik kanpo gero eta ezagunagoa dela. Horren erakusgarri, euskal idazleen katalogoa da, bere egileen artean beste emakume bat duena: **Marijo Olaziregi**.



Mikel Valverde

**Marijo Olaziregi** hamarkada honen hasieran euskal gazteen literatur gustuez ikerketa bat egin zuen eta lan horretatik abiatuta, literaturaren zale amorratu hau bete-betean sartu zen gazte literaturan, gero emeki-emeki bai helduentzako literatura bai HGL ikertzera abiatzeko. Bere azken lanetako bat arestian aipaturiko katalogoa da: bertan euskal HGLko 22 egile bildu dira, hainbat ehundaka idazlan eta be-

rauen itzulpen ugari. Gaur egun HGLn ditugun idazlan, gai eta estilo ezberdinen aberastasun eta ugaritasunaren ispilu da katalogoa.

Izan ere aipatua dugun ahozko literaturarekin eta egungo bere bertsi-  
oekin batera, fantasiaren esparruan irakurleak **fantasiatzko errealismoan** girotutako idazlanak aurki ditzake («pertsonea, botere berezi, leku etabar zoragarriak edo magikoak izan ohi dituzten errelatuak, ez derrigor herri tradizioarekin erlazionatuak» Valriu, 1994. 147). Zientzia fikzioan girotutakoak ere aurki ditzake (baina egia da azken korronte honetan ateratako idazlanak oso gutxi direla).

Rodariren eragina ukazina da lan batzuetan [*Tristeak kontsolatzeko makina* (1981), *Kaskarintxo* (1982), *Nire belarriak* (1984) etabar], mitologia eta abenturen arteko konbinaketa bezala (*Marea biziak zozomikotetan*, 1991) edo osagai liluragarriren baten erabilera (*Asier eta egia gurutzatuen liburua*, 1995).

Osagai fantastiko eta errealisten konbinaketak idazlan asko sortu ditu; arestian aipatu ditugunetatik sustrai psikologikoa dutenetaraino (*Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982), horren adibide). Baita bidaietakoak ere (*Hakuna Matata*, 1995).

**Zientzia fikzioak**, ordea, jarraitzaile gutxi ditu euskal HGLn. Eta sintomatikoa da korronte ba-



Asisko

tean edo bestean argitarapen gutxi edo asko egotea euskal literatura osoan berdintsu gertatzea eta ez HGLn bakarrik. Helduentzako literaturan ere oso urriak dira zientzia fikziozko idazlanak

**Abenturetako liburuak** present egon dira aspaldi euskal HGLn liburu bakarreko egileen idazlanetan; adibide ditugu Mertxe Olaizolaren *Nire ibilaldiak* (1982) edo Arantxa Mendietaren *El Dorado-ren bila* (1989).

Baita idazle garrantzitsuen eleberrietan ere, hala nola Aingeru Epaltza (*Lur zabaletan*, 1994), Aitor Arana (*Afrikako semea*, 1991) edo Txiliku (*Indianoa*, 1993). Idazlan hauetan nabarmena da XIX. mendeko abenturetako eleberri handien eragina (A. Aranaren eleberrian agerikoa da Salgari, Stowe edo Stevenson bezalako egileekiko erlazioa), baita ere garaiko egoerak islatzeko asmoa edo euskaldunen Amerikarako emigrazioa.

Abenturetako eleberrien alorrean protagonista neska-mutil taldeak dituzten idazlan mordoska ageri da. Horrela Pako Aristiren *Martinello eta sei pirata* (1986) liburuak hasiera eman zion protagonista mutiko talde bera zuten hainbat abentura idazlanei. Berdin J. Iturrালের *Zikoinen kabian sartuko naiz* liburuan ere.

Baina euskal HGLn abenturetako liburuak garrantzizkoak izan badira, gehiago izan dira



Asisko



Mikel Valverde

**umorezko liburuak.** Egoera dibertigarriak kontatzen dituztenetik hasi eta txiste edo pasadizo liburuetaraino. Eta *Abarrak* (lehenengoz 1918an argitaratua eta haurrentzat 1981ean berrargitaratua), *Pernando amezketarra* (1927, 1981), *Purra! Purra!* (1953, 1987-88), *Fernando plaentziarra* (1957, 1984) etabar bezalako tradizioaletatik *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (1994) bezalako idazlan berri eta modernoetaraino.

Zalantzarik ez dago umoreak irakurtzera animatzen duela eta oso osagai garrantzitsua dela haur eta gazte literaturan. Gai «serio» asko ere, komunikaziorik eza esaterako (*Julieta, Romeo eta saguak*, 1994) edo gizarte konpromisoak (*Xola eta basurdeak*, 1996), umorea garrantzizkoa den ikuspuntutik landuta daude.

Umorea eta abentura bezala, **misterioa eta eleberri poliziakoa** oso present daude gazte literaturan. Idazlanotan gazteak ia beti dira ikerketen protagonistak eta bertan, helduen literaturako biolentziaren aurrean, ausardia eta azkartasuna lehentasunezko baloreak dira.

1981ean Erein argitaletxeak HGLko bere bilduma genero horretako lan batekin

hasi zuen: *Portzelanazko irudiak*, E. Blyton-en estiloko eleberria. Xabier Mendigurenen lehen idazlanetako bat *Tangoak ez du amaierarik* (Elkar, 1988) izan zen, Buenos Airesen girotua; erreprezio politikoa zirkoaren munduko intrigarekin nahasten da bertan. Amaia Ormaetxea bezalako idazlan bakarreko idazleak ere izan dira; berea da *Erinias taberna* (1990), sute batean gertatutako heriotzaren ikerketa deskribatzen diguna. Eta, aldi berean, Joxemari Iturralde bezalako egileak daude, intrigadun liburuak egin dituztenak: *Sute handi bat ene bihotzean* (1994). Baina, ezpairik gabe, euskal HGLko gazteentzako eleberri poliziako bildumarik garrantzizkoena, detektibe zaltetasuna daukan andereño bat protagonista duena da: «Madame Kontxesi Uribe, Brigada & Detektibe». Umorea, ironia eta satira nahasten dira bilduma honetan eta badu zer edo zer Mrs. Marple-renetik eta 007 agentearenetik (Von Salchichen gaizkilearen aurkako borrokak bilduma osoan zehar irauten du).

Baina agian HGLko aldaketarik handiena gizarte kritikako idazlanetan gertatuta da, edo geure burua pixka bat hobeto ezagutzen laguntzen



Jon Zabaleta






Jon Zabaleta

diguten horietan; **errealismo kritikoaren** korrontean kokatutako idazlan guztietan, alegia. Ohiko osagaiak eta narratibako teknika berriak erabiltzen dira irakurlea gogoetara gonbidatzen duten idazlan hauen oinarri gisa.

Lehenago ere esan dugun bezala, *Txan fantasma* (1984) euskal HGL modernoko lehen lanetako bat da, ez tematikagatik soilik, teknika narratiboagatik ere bai. Lehen obra honek kalitate handiko argitarapen askori bidea zabaldu die. Berauetan gure gizartea eta haur eta gazteen mundua aurkezten zaigu. Aipatu adibide gisa S. Calleja eta X. Monasterioren *Dado Iratxoa* (1986) gaixorik dagoen bederatzi urteko mutiko baten historia eskaintzen diguna, edo *Matias Ploffen erabakiak* (1992) baloreen nagusitasuna eta gizentasunaren arazoak aurkezten dizkiguna. Gaur egungo HGLn planteatzen diren beste gai batzuk egungoagoak dira [*Urrutiko intxaurrek*-en (1996) ageri diren haur superdotatuak bezala] edo orkorragoak (heriotza *Gauetz zoo batean*, 1993 liburuan, edo maitasuna *Maria eta aterkia*-n, 1988). Neskato baten eta euritako baten arteko harremanaz ari den azken idazlan hau ere Mariasun Landak idatzia da, bera delarik euskal HGLren errealismo kritikoaren agertzaille puntakoena zalantzarik gabe. Esaten ari garenaren adibide argiak dira honako idazlan hauek: *Julieta, Romeo eta saguak* (1994), sagu batzuen begiez eta umorez pertsonen arteko komunikazio ezaz eta bakardadeaz hitz egiten diguna, edo *Alex* (1990), maitasuna, amarekiko lotura eta nerabeen sentimenez ari den ipuin iniziatikoa.

80ko hamarkadaren erditik aurrera errealismo kritikoak lekua irabazi du euskal literaturan (U. Wölfel, F. Hetmann, M. Gripe, Ch. Nöstlinger, P. Härtling, T. Haugen etabar bezalako egileen idazlanen itzulpenek honetan lagundu dute). Gaur egun euskaraz idatzitako lanek gizarte tematika ia osoa betetzen dute eta azken urteotako kalitatezko idazlanetan isladaturik ageri dira: militarizazioaren arazoa edo biolentziarena (*Joxeme gerrara daramate*, 1992; edo *Marigorringoak began*, 1994), ekologia (*Desafioa*, 1988; *Hirulagun*, 1995; *Joxepi dendaria*, 1984), familia (*Txi-toen istorioa*, 1984; *Jaun agurgarria*, 1993), txirotasuna (*Kittano*, 1988), emigrazioa (*Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, 1984; *Lur zabaletan*, 1994; *Eztia eta ozpina*, 1994), inmigrazioa (*Eddy Merckxen gurpila*, 1994), langabezia (*Harrika*, 1989), maitasuna (*1948ko uda*, 1994), askatasuna (*Asto bat hypodromoan*, 1984; *Potx*, 1992; *Tristuraren teoria*, 1993; *Behi euskaldun baten memoriak*, 1991), etabar.



Jon Zabaleta



Jon Zabaleta

Marijo Olaziregiren lana ez da euskal HGL ezagutzera emateko ahaleginen soilik ardaztu. B. Atxagaren lanari buruz egin duen tesi doktora-lean *Behi euskaldun baten memoriak*-en azterketa kritikoa eskaini digu, izan ere, Rossel-ek haur literaturaren kritikari buruzko artikulu batean ederki zioen bezala: «helduentzako literaturaren sektore gisa aurrera ez egiteaz gain, haurrentzako literaturaren kritikak ere ez du aurrera egin ikergai duen materiaren abiadura berean». Baietzapen hau euskal literaturarako ere baliagarria da. Azken urteotan idazlanen kopuruan eta kalitatean gertatu den bilakaerari ezin izan dio literatur kritikak jarraitu. Egia da mintegiak eta ikastaroak egin direla, baita argitarapenak ere, eta Unibertsitatean zenbait tesi doktoral irakurtzen

hasi direla (Marijo Olaziregiren tarteko); baina argitaletxeen ekoizpenean HGLk duen garrantzia komunikabideetan edo kritika berezitan duen oihartzunarekin alderatuz gero, desoreka handia ikusten da, denon artean apurka-apurka zuzendu behar genukeena. Hau da, zalantzarik gabe, HGLk orohar dituen erronketako bat, euskarazkoarenak bereziki. Espero dezagun hau bezalako Ihardunaldiek eta Biltzarrek norabide horretan aurrera egiteko baliagarri izatea.

Eta, besterik gabe, utzidazue, mesedez, gure ibilbideko hamargarren eta azken bidelaguna aurkezten: **Munia**.

**Munia** lau urteko neskatila da, kalitatezko eta aukera oneko liburutegia daukana; gainera, bi-



Pedro Osés

## ↪ Hizpide ↪

har ez bada etzi, titulu, gai, estilo eta egile anitz izango ditu eskuragarri. Munia neskatilak, HGLri dagokionean, euskal literaturan egundo ezagutu ez bezalako egoera ezagutuko du. Baina Muniari *Xirrixta* aldizkaria ere gustatzen zaio eta honek irteteari utzi zion iazko maiatzean. Horrela bereztat euskaraz zegoen argitarapen bakarra galdu du Muniak. Horrek denoi pentsarazi behar digu HGL hartzen ari den norabideaz. Izan ere, agian,

aurre egin behar geniokeen erronka gutxiago eta hobeto argitaratzea da.

Edozein modutan, utzidazue esaten aitarekin haserre dagoenean Muniak esaten duena: ZUI-SI-LIK! Eta nik ongi dakidanez nire etxean agintzen duena Munia izeneko lau urteko neska hori dela, hementxe amaituko dut isilik geratuz.

(Zati batez UPV 051.-HA 114/97 ikerketa laguntzarekin eginiko lana.)

(Aitor Aranaren itzulpena)



### Erreferentzia bibliografikoak:

- VILLASANTE, L.: *Historia de la literatura vasca*. Ed. Arantzazu, Arantzazu, 1979.
- GARCIA PADRINO, J.: *Libros y literatura para niños en la España contemporánea (1885-1985)*. Fundación Sánchez Ruipérez-Pirámide, Madrid, 1992.
- ROVIRA, T.: «La literatura infantil i juvenil». In Riquer, Comas, Molas *Història de la literatura catalana*. Ariel, Barcelona, 1988, vol.11, 421-471.
- CENDAN PAZOS, F.: *Medio siglo de libros infantiles y juveniles en España (1935-1985)*. Fundación Sánchez Ruipérez-Ed. Pirámide, Salamanca, 1986.
- VALRIU, C.: *Història de la literatura infantil i juvenil catalana*. Pirene, Barcelona, 1994.
- LANDA, M.: *Iholdi*. Erein, Donostia, 1988.
- ETXAIDE, J.: «Jon Etxaide: Idazle kontentagiatzaren tristura», *HABE* 40, 6-10, 1984.